

**EUDELeK antolatutako Tokiko Zuzenbideari buruzko
mintegiaren VI. edizioak Euskadiko udalen aurrekontu-
egonkortasunari buruzko gogoeta egingo du**

- **Batez ere idazkariei, aholkulariei eta udal langile juridikoei dago zuzenduta**
- **Mintegiak bost saio izango ditu; saioetan, toki esparruko arlo juridikoaren zenbait alderdi aztertuko dira, goi mailako katedradun eta magistratuen eskutik. Era berean, esparru juridikoko arlo arau-emaile, jurisprudentzial, dokumental eta bibliografikoko nobedadeak aurkeztuko zaizkie bertaratutakoei**
- **Hizlarietako bat Bilboko Udaleko Aurrekontu eta Zerbitzu Orokorren zuzendari ordezkari Carlos Urgoiti izango da, eta Bilboko Udaleko aurrekontu-egonkortasuna eta defizitaren eta zor publikoaren kontrola izango ditu hizpide**

Bilbon, 2012ko maiatzaren 4an. Gaur hasiko da EUDELen egoitzan Tokiko Zuzenbidearen Euskal Mintegiaren VI. edizioa, Euskadiko Udalen Elkarteak HAEE-Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin lankidetzan antolatuta.

Mintegia maiatzaren 4an, ekainaren 15ean, urriaren 5ean, urriaren 19an eta azaroaren 23an izango da, 09:30etik 14:00etara, eta, batez ere, Euskadiko udaletako idazkariei, aholkulariei eta langile juridikoei dago zuzenduta.

Mintegiak izango dituen bost saioetan, toki esparruko arlo juridikoaren zenbait alderdi aztertuko dira, goi mailako katedradun eta magistratuen eskutik. Era berean, esparru juridikoko arlo arau-emaile, jurisprudentzial, dokumental eta bibliografikoko nobedadeak aurkeztuko zaizkie bertaratutakoei.

Aurrekontu-egonkortasuna

Mintegiaren lehenengo saioan (gaur izango da, maiatzaren 4an), tokiko administrazioen aurrekontu-egonkortasunari buruzko gogoeta egingo da.

Hori horrela, hizlarietako bat Bilboko Udaleko Aurrekontu eta Zerbitzu Orokorrren zuzendari ordezkari Carlos Urgoiti izango da, eta Bilboko Udaleko aurrekontu-egonkortasuna eta defizitaren eta zor publikoaren kontrola izango ditu hizpide.

Ondorengo saioetan alderdi hauek aztertuko dira, besteak beste:

- Doikuntzarako neurriak antolaketan eta tokiko enplegu publikoan, eta lan-erreformaren eragina herri administrazioetan.
- Lehia Auzitegia.
- Lizenziak, aitorpen arduratsuak eta erakunde kolaboratzaileak ingurumenaren esparruan.
- Tokiko zerbitzu publikoen kudeaketa.

Saioetan parte hartuko duten hizlarien artean honakoak nabarmentzen dira, besteak beste: Carlos III.a Unibertsitateko Administrazio Zuzenbideko ikasle eta Administrazioarekiko Auzien arloko magistratu Alberto Palomar, Bartzelonako Diputazioko Zerga Kudeaketarako Erakunde Autonomoaren idazkari Ferrán Torres eta Gipuzkoako Aldundiko Araubide Juridikoaren zuzendari Luis Elicegui.